



harria mito

GARAZI ALBIZUA



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

GARAZI ALBIZUA

harria mitoa

I. MUNDUAREN SORRERA

NI, HARRIA

Oraindik, ez.

Tentsioa. Indarra. Eta bat-batean, zeozer biguna: ezagutza, jakinduria tranpatia nire baitan sartu da. Segundo bakarrean jakin izan dut kuriositatea dela ezin besarkatuzko korrontea.

Nahi dut lokarria askatu; haren zanpaldia, eten.

Baina.

Ulertu dut denborak zeharkatu nauela nahiz eta denbora zer den ez ulertu. Halere, geruza zarrastatu zait; lehen ez zegoen orbainak adierazi du orain egon badagoela eta zalantza ere heldu da: egongo ote da?

Iraganak eta etorkizunak zizelkatu didate gorputza.

Mendeak igaro dira une zabalean; memento horretan, aditu dut hizkuntza. Hitz guztiak ezagutu ditut; bizitzaren hasierakoak: jaio-goiza-egunsentia-ihintza; eta heriotzarenak: hil-gaua-ilunabarra-lausoa. Gerora, gizakienak direla jakingo dut, eta beste batzuk ere ulertuko ditut: gureak.

Nire buruari izena jarri diot, Harria. Gure hizkuntza ezin ahoskatu dezaket. Ezin keinuen bidez azaldu. Ezin ikusi. Ezin entzun. Ezin ingurumena nabaritu.

Eta halere, hori guztia badakit, horiek guztiak barneratu ditut. Zuek, gizakiek, ulertu/heldu/asmatu ezin duzuen bizitza da nirea; baita denbora gabeko segundo guztiak ere.

Baina.

Jarri didazue magia.

Jolastu zarete zuen errituekin eta usaiekin. Eta ni, horietan guztietan uztartu nauzue.

Zelan jakin hori?

Zuen hizkuntzan azalduko dizuet zelan aho gabe, begi gabe, sudur gabe, belarri gabe, azal gabe antzeman eta ulertu nituen ahoa, begiak, sudurra, belarriak eta azala. Uler dezakezuen moduan, beraz; kontatuko dizuet.

Eta hasiera, jakina, heriotza da:

Lurrean, zuloa egin dute.

Leitzan, Urepel-Baztarla zonan, Kristo aurreko 2500. urtean.

Lau dira. Altuak, handiak eta iletsuak.

Eurekin, beste sei ekarri dituzte nirera. Horiek isil, mugitu gabe; arnas gabeko gorpuak. Tamaina askotarikoak.

Tamainak adinarekin zerikusia duela ezin asma dezaket oraindik.

Ni hartu eta mugitu naute. Arrastaka eta izerdika, bultzada amaigabeko laztana da. Nire gainean beste ni bat jarri dute, baita aldamenean ere. Ni gehiago batu dituzte. Inguratuak gaude. Ni gara guztiak.

Lurrari egindako hobian ehortzi dituzte gorpuak.

Bat-batean, dena jakin dut. Nor den lurrean bota duten haurra; nortzuk, hiru gazteak eta bi zaharrak. Hamabi begi hazi zaizkit, hamabi belarri, sei aho, sei sudur eta nire geruza azal bilakatu da. Hainbat harri naiz ni, eta guztietan nabaritu dut memento horretako garra.

Hasierako izakiei beste batzuk batu zaizkie. Ekin diote dantzari, lurra dardarka jarri dute eta mugimendu eroek, nire azala sortu. Egunsentiaren argi epelak gerizpeak astindu eta, horrela, ireki zaizkit begiak. Batzuk, iluntasunaren loditasunean gatibu; besteak, distiraren itsutasunean, so. Belarriak hazi zaizkit uneko garrasiak entzuteko, oihu sakon bezain hezeek blaitu didate barrena. Modu horretan dastatu dut lurra eta usaindu izerdia, aho eta sudur berri-berriak jaiok. Orduantxe ala gero, orain zein sekula ez, sortu da nia; ni naiz Harria. Haiek gizakiak dira, euren heriotzaren errituaren bidez bititza piztu didaten jainkoak, hain zuzen.

Lurperatutako gorpuen esperientziak jaso ditut. Haurrak eman dit kobazuloaren berri, hori izan da euren harri-etxea. Gaixotu zenean, harri hotzari esker lasaitu zuen bero itogarria. Ahots gazte batek kontatu dit zelan, hilabetean behin, kobazulo nagusia utzi eta beste batera joan behar zuen, bere gorputzak botatzen zuen odola eten arte. Hainbat kontu heldu zaizkit gorpu batetik zein bestetik. Herioaren narrazioa da beti.

Lurrez, zizarez eta erraiez jositako kontaketek nire sena ferekatu dute segundoetan, urteetan eta mendeetan zehar.

Bakoitzean, ahots batek hartu du txanda. Horrela, sei doinuk eman didate nire berri. Haiek dira gure jainkoak.

JAINKOAK

LIPITZ

Arintasunaren eta txikitasunaren jainkoa da.

Haren gorpua ehortzi zuten kopeta oin puntekin batuta, hasiera eta bukaera bat ekidin nahi izan balute bezala. Bere haragia emeki lokabetu zen hezurretatik, hura lurra elikatu eta berehala desagertu zen arte.

JAINKO ARGALA da, gaztea, itxura femeninoa du. Bere ahotsa haize gozoa da, hitzak isiltasunean eraiki ditu, ia xuxurlatuta entzun ditut haren istorioak; beti txiki eta arin, nire belarri batean egin du habia.

ELUTS

Laiotzaren jainkoa da.

Gorpua besteengandik aldentuta jarri zuten, halere, haren azazkalek bertako sustraiekin batu eta beste gorpuk harrapatu dituzte etengabeko besarkada hauskorrean.

ITZALPEAN sortutako kontakizun zakarrak dira andre zahar horrenak. Haren hitzek tolestu dute nire ahosabaia, erliebe berri horretan marraztu ditu itzalaren antzezpenak.

IARTZA

Lehortasunaren jainkoa da.

Gizakiaren gorpua besteen erdialdean utzi zuten hankak eta besoak zabal-zabalik. Bere azpiko lurrak hezetasuna galdu zuen, ez zaio gorputza sekula usteldu.

ITXURA MASKULINOA duen gaztea da, haren indar iharra sakabanatu zait azaletik barrena, istorio berriak kolpatu ditu mintzaren idortasunean.

TOLORTA

Jainko ustela da.

Zatika ipini zuten haren gorpua, zatiak erabili zituzten beste gorpu guztiak biribil baten baitan biltzeko. Haren haragiak eta hezurrek animalia txiki eta landare berriei bizia eman zioten.

HAREN ITXURA GAZTEA gizonezkoa da nahiz eta haragia etengabe askatzen zaion gorputz atal bakoitzetik; horregatik, askotan, ez du itxura bakarra, baizik eta etengabeko eraldaketan dabilena.

Kiratsaren eztulak sartu zaizkit sudurraren zuloetatik eta, bertatik, istorioen berri eman.

ZIPITT

Zirikatzearen jainkoa da.

Lau hankatan jarrita ehortzi zuten haurraren gorpua, beti edonora ihes egiteko prest.

HAUR ITXURA duen jainkoa da. Nire begien parean argiarekin jolastu eta ipuinak agertu ditu: bizi-biziak, begiak kliskatu eta berehala desagertutakoak. Magia, nahia eta beldurrak uztartutako istorioak erakutsi dizkit.

AZTIN

Denboraren jainkoa da.

Haren gorpua buruz behera eta besteen gainean bota zuten. Besteak ukitzen ditu bere ile urdinduarekin. Denbora pasa ahala, ilea luzatu zaio eta jainko guztiak bildu ditu armiarma sare maitekorrean.

BARNEAN eta kanpoan da, orain eta sekula ez. Jainko zahar honek kontatutakoa mementoan dakit, beti hor, niaren barnean, egon izan balitz bezala.

HAIEN JAKINTZA OINARRI, nirea lortu dut. Zenbaitetan, haiekin eraldatu eta euren laguna izan naiz; besteetan, isilik eta irmo esandakoaren lekuko.

II. ERRALDOIAREN KABIA

Aztinen kondaira

KOBAZULOA naiz.

Gizona nire barnean dago. Alde batetik bestera doa, burua makur eta ahoan min ematen dioten ideiek hozkatuta.

Izugarri altua naiz. Aritz mendiko pareta horretan existitu naiz, eta badakit desagertuko naizela. Bizi eta hil, izaki hark bizi eta hil egingo duen moduan.

Baina...

Aztinen hitzek beste egia erakutsi didate: gu, gizona erraldoia eta biok, denboraren zati bilakatu gaitu; beraz, bai, jaio eta hilko gara, baina inoiz ez desagertu. Jainkoaren zeta-antzeko ilean badugu lekua. Denbora gara.

—Nola zuen izena? —galdetu diot Aztini.

“Horrek ez du axola”. Haren erantzuna galdera egin aurretik ezagutu dut.

“Bera zen erraldoia, bera zen jakintsua, berak bazekien...”.

Kanpoaldeko argia estutu eta ilunpean, gozo-gozo utzi gaitu. Nabaritu dut zelan erraldoiak bere bizkarra nire azalaren kontra jarri eta pixkanaka-pixkanaka labain egin duen lurrean eserita geratu den arte. Hanka bat luzatu eta oina kontrako paretaren aurka estutu du. Indar egin du. Ni zabaldu nahian? Taupadaka sumatu dut barrena. Haren tentsio indarrak ni apurtzeko beldur eta irrikan.

Lasaitu nahi dut.

Saiatu naiz dar-dar txiki bat sortzen, nire gorputza puztu eta barneko arroken laztanaren bidez, erraldoiaren etsipena murrizten. Ez dut lortu. Hura, bat-batean, zutitu da eta heste barrenetik askatutako garrasi pisutsua bota du. Gero, besoak nire aurka tenkatu eta negar egin du.

Haren malko ugariak busti naute.

“Bazekien. Kixmi jaio eta haren desagerpena gertu zuen...”.

Garrasiaren oihartzunak azala urratu eta harkaitz txiki batzuk libratu ditut. Kiribilduta, heldu dira erraldoiaren atzaparrak arte. Ezustean, hauteman, makurtu eta ni txiki horiek jaso ditu. Haren ukitu lotsatiak baina sendoak poztu nau.

Beraren zirkin lasaiek, haren gorputzaren bero epelak eta nire barnean mugitzeko samurtasunak unearen mingotsa eten dute. Aurreko urduritasun urdin eta dardartia, zeharo akituta.

Segundo horiek, memento hura, denbora...

“Bai, itxaropen izpia heldu zitzaion: zu, haren eskuetan; zu, haren kabi; zu. Bai, zu zinen azkeneko txanpa... Aukera estu bezain liraina; baina, harria. Sendoa. Irmoa”.

Haren ausardi gordinak handitu nau. Ni hemen naiz, bai; baina hor kanpoaldean ere, banaiz. Zatoz.

Berriro argitu du, nire aho bazterrak bestelako kolorez agertu dira: bidearenak, hain zuzen. Lurreko horixka, zeruaren grisa, eta beharrezkoa dugun argi zuria. Zatoz, har nazazu.

“Zugana jo zuen, noski. Zure konpainia erregutzera, zure laguntzaren behar ito-itoan, eske”.

Erraldoia nire hobitik atera da. Ertzetan esku sendoak paratu eta bultzada txiki batekin egin du kanpora: aske, luze, handi eta prest.

Kanpoan, bestela ibili da; harro eta lerdin.

Haren pausoekin ibili naiz ni ere. Bere ondoan, bere oinetan, haren bide. Aritzetik motel ibili da, gure azkeneko aukera hau dastatu nahian. Haren begi grisek ingurunea jaso dute. Leitza. Mendia, egurra, lurra eta ni. Ferekatu gaitu haren ulermen zintzoarekin eta, horrela, maitatu. Nik ere maite zaitut.

Ez da gehiegi urrundu ni aurkitzeko nahiz eta geldo egin duen aurrera. Orpoetatik burura so egin diot; haren aurrean sendotu naiz; nire azala, geruza, leuntasuna eta indarra erakutsi dizkiot. Prest, prest naiz. Aurki, hartu nazazu. Jaso.

“Zuregana heldu zen, urduri baina lasai, zu baitzintuen borrokarako prest. Besarkatu eta altxatu aurretik, ulertu zintuen...”.

Bai, hala da. Eta nik, hura.

Elkarrekin egingo genion aurre; elkarrekin, atzerriko mehatxuaren kontra jo.

Orduan, orduantxe, bai, bi besoak nire aurka estutu, eskuak lotu eta gorantz egin zuen. Gero haren burutik gora helduta, biok batera aurrean genuen mundua ikusi eta horri oihukatu genion. Haren orroaren oihartzuna bildu nuen dardarka.

Baina...

“Ez. Egon, geldi. Hau izan da-eta nire kondaira: zelan harria eta jentila prestatu ziren etsipena, beldurra, iluntasuna eta negarra ekarriko zituen argi distiratsu eta iruzurti horri elkarrekin aurre egiteko”.

III. SUGARRAREN BORTIZKERIA

Iartzaren kondaira

SUA, beroa, kolpeak.

Iartzaren hitzak heldu zaizkit, nire azalean agertu ditu orduan sufritutakoak. Gertaera zizelkatu du jainkoak, gozo eta samur.

1353. urtea da, Iberoko dorrean gara.

Ni hor naiz, dorre horretan; bai lurrean, baita burdinolan ere.

Burdinolara eraman nau Iartzak eta naizen harri horietan guztietan arreta jartzera behartu. Besteak kanpoan utzi ditut, ezin nabaritu aire askea, ezin usaindu dorre barneko bizi gozoa.

Kolpe-kolpe-kolpe.

Hasi da musika.

Zaharkitutako usaina heldu zait, zartadaka sartu da nire barnera.

Izerdiak, oihuak eta iluntasun gordinak babestutako premia guztiak bildu ditut nigan.

Entzun ditut gizonen hitzak. Beldurtu egin naute.

—Mantendu ezazu tenperatura. Ea ikatza faltan ez dugun...

Ikazkinak pala pasatu dio besteari. Bere txanda bukatu da. Lanabesak esku batetik bestera labain egin du, belztuta eta leher egina. Lehenengo gizonak keinu bat egin dio bigarrenari eta pauso astunez alde egin du. Ikazkin berriak pala hartu eta ikatza sartu du mekanikoki. Hasi eta dagoeneko izerditan, dagoeneko kutsatuta, dagoeneko, prest.

“Bazekiten zure barrenean zegoela eta hortik ateratzeko sua zuten lagun”.

Ni.

Niaren ezagutza atzerritarrek nia zatitu du. Askotan, entzun dut zelan burdinaren eta odolaren usaina parekoa den. Jakina. Nire baitako burdina ez al da zuen baitako odola?

Kolpe-kolpe-kolpe.

Bilatu dut burdinolaren beste harrietan adiskidetasuna. Aurkitu nahi izan dut laguntasuna. Arrotz ditut. Jasoko dudanaren ikusle dira. Batzuk, lekuko; beste asko, partaide. Nahi dut joan, nahi dut...

—Gaur ere erritmo ona mantendu beharko dugu.

—Ez dakit, bada, eskatutakoa lortuko dugun.

—Zerbait jan al zenuen atzo? A ze itxura!

—Nor ostia ibili da hemen, lehenago? Kakaztuta utzi du dena.

Gizonen artean ezin inolako hurbiltasunik topatu. Euren elkarrizketa, maiz arduragabe, maiz zehatza, baina guztietan abstraktu eta beldurgarri heldu zait.

Kolpe-kolpe-kolpe.

“Zauritu zaituzte. Hil eta jaiotzaren ekintza basa da hura; baina ez zaitetz ikaratu, Harria. Izuak ez zaitu lagunduko. Begiratu, sentitu eta gozatu une bakoitza. Ulertu zelan puskatu zaituzten, eta ikasi zelakoa den puska ororen bizi nahia”.

Badakit hasiera batean bestelakoa nintzena. Badakit hona heldu aurretik, gizonek ni markatu aurretik, alegia; hezetasunak gorputza leundu zidala eta zizareek kilimak egin zizkidatela. Badakit..., baina ezin naiteke iraganean babestu; orain, burdinolaren barnean nago.

Hauspoen arnas erritmikoez nire mintza zoratu dute. Harri batek indarra eman die hauspoei eta mailuari. Urak, haizeak eta kolpeek eraiki dute nire amesgaizto pertsonala.

Naizenaren memoria ito egin da. Hauspoen arnasak eta mailuaren zaratak barnea estutu didate. Nor naiz? Non nago? Ez dakit posiblea den, baina txikitu egin naiz nire barnean.

Kolpe-kolpe-kolpe.

“Kar-kar-kar. Txikitu, handitu, zatitu. Zu zara harria! Zu zara burdina! Zu zara hain maitekorra, hain beharrezkoa... Zurea da errua. Baina, txiki, ez zaitetz kikildu... Segi, ulertu pairatutakoa”.

Burdinolaren aho itxi ezina elikatu dute etengabe. Xehatutako ikatzaz eta mineral geruzaz bazkatu dute txandaka; gero, labearen sua piztu eta hauspoekin airea eman diote, apurka-apurka, ito gabe. Esku trebeen mugimendu arautua dantza egokia dirudi, giro horrek beharrezkoa duen konpasa. Ni ez naiz holakoa, ezin horretan libre parte hartu, ez nazazue hara eraman. Baina, bai; eskuek eta palak, palak eta eskuek hartu naute. Memento batez, ospakizunaren barnean naiz, orroen doinuarekin bat.

Ondoren, labearen sartu naute.

Haren gosea ezin aseko dut.

Infernuaren errai gordinetan ernatzearen zain nago.

Labearen hozkadaren beldur naiz; halere, ez da horrelakorik gertatu. Suaren indarrak, eraldatu naute: itxura oretsuko burdin masa naiz orain. Ideia berriak hazi zaizkit; baina, ezin horiek ulertu, jarraitu behar dut, ez dute aski.

—Azkar, hor!

—Kontuz gero!

Premiak, premiak! Eta... Kolpe-kolpe-kolpe!

“Agoa deituko zaituzte, zure indar eta itxura berria mailuaren azpian ipiniko dute. Ingudearen kontra, kolpeka. Baliagarria zara, Harria. Zure burdina nahi dute”.

Eta kolpeek jarraitu dute. Eta ni naizen beste hori bazterrean utzi duzue; gero eta multzo handiagoa eraikita, nire itsustasun eta orbain guztiak batu dituen errestoa, hain zuzen.

Baliagarria naizen beste ni, ordea, maitekor babestu duzue. Burdina da. Boteretsua, sendoa, beharrezkoa.

Burdinarekin jarraitu nahi dut ametsa. Iartzari eskatu diot kontakizun ederra.

Barre egin dit.

Berriro, arrastaka, errautsen erreinura ekarri nau; hona, izkinara; eta derrigortu nau entzutera bazterreko nire atalak, nire gorputzak, nire esentzia ere diren horiek guztiek kontatzeko dutena. Erotzear nago.

Bazter guztietatik heldu zaizkit eskoriaren hitz txikituak. Zuek, gizakiek, ezin entzun, ezin ahoskatu, ezin ulertu ahal dituzue. Eta mina dute hizpide!

“Egon, Harria. Oraindik ez dut bukatu... Ez al duzu sumatu berriro haizea?”.

Ibero Dorrean nago. Kanpoaldean.

K.o. XIV. mendea da. Dorrea eraso dute. Harri on, eder eta soil askok galdu dute euren tokia. Hitz asko ulertu ditut batera, zatika heldutako hitzaldia da. Izkina kaltetuan hazitako mintzaldia, baina orain, aske; orain, seguru; orain, argitasunean, tente!

Harrotasun beroa da zatarkeriarena.

“Baliteke, bai. Hau izan duzu, hortaz, Harria, nire kontakizuna: zelan egun batean eskoriak bere izkina zikina utzi, burdinolak eragindako minatik atera eta dorrea gorde zuen, itsusi bezain harro”.

IV. ERROTA HARRIAREN IZERDIA

Elutsen etsipena

NAHIZ ETA harria izan, bidaiatu naiz; asko, gainera.

“Dastatu, dastatu emakume baztertuaren narrazioa, Harria. Dastatu, dastatu nire hitz bustiak. Dastatu, dastatu irinaren eta harriaren arteko harremana...”.

Elutsen berbak beti dira hezeak. Berak kontatutako istorioak sortu dit beroaren eta hotzaren arteko zaporea. Nire izerdiarekin bat egin du haren arnasak.

Erasote ibaiak, ura baino, bitzta ere eraman du arrastaka, Harria. Erasotek batu gintuen, maitea.

Behin, zu nire tokira heldu zinen. Ai, Harria, ai! Hain nengoen pozik. Gure errota zen memento hartan; beste familia batzuek ekoitzi zuten lehenago; eta beste batzuek, geroago. Herriaren errota zen”.

Kilima egin dit bere mingainak aho sabaian.

“Zu etorri zinen, Harria, sendo eta berri, ni hara heldu nintzen moduan: emakume aske eta langilea. Dastatu, dastatu, Harria, emakume baztertuaren narrazioa”.

Elutsen hitzek ibaira eraman naute.

Itzalean naiz. Elutsekin batera, zelatari.

XV. mendean gara, harrobitik atera naute. Bertan utzi dut hobia, baina pozik naiz, bidaiatzeko prest, lan egiteko prest. Nire narratzailea ere hala da.

Emakume gaztea eta, dagoeneko, alarguna. Bost ume ditu haren kargu eta ni, errota, haren bizimodu.

Argiek eta itzalek eman didate denboraren berri. Goizeko abestiak eta gualdeko kontuak dira nire erloju.

—Atzo, Jose Javier harginarekin joan zen, ikasle hartu du! —kontatu dit.

—Maria Felisak patatak ekarrik dizkit; gero, eramango diot zakutxo bat irin, ezta? —galdetu dit.

—Apaiz berria etorri da, bitxi begiratu nau... Eta arrosario gehiago esatera behartu! Nork al du denbora horretarako? —aitortu dit.

Apenas ez dugu lasaitzeko unerik, lan eta lan beti. Badatoz lagunak, euren garia eman eta guk irina bilakatu; gero, laka guretzat geratu da.

“Eskuak, Harria; eskuak hain izan daitezke samurrak...”.

Bai.

Zelan hartu garia, zelan ipini, zelan lortutako irina atzamar artean pasatzen utzi. Memento honetan, gure bitzta eskuekin helduta dugu, eta beharretik tiraka heldu gara une batetik bestera.

Hasi da apaiz berria bisitan. Galdera asko egin ditu. Ziztu bizian heldu dira haren hitzak. Aurreko galdera erantzun aurretik, bigarren bat, eta hirugarren bat ere bai.

Apaiza joan denerako, emakumea guztiz ahituta dago: errotarrian bota da, eseri eta begiak itxi. Une honetan, bere kanpo nago. Urrun. Minutu batzuk beharrezkoak ditu. Gero, jaiki eta, berriro irribarretsu, ekin dio lanari. Berriro ere, lagun.

“Harria, eskuek ere badute bestelako jarrera. Dastatu, dastatu horietan dagoen lur aztarna; dastatu, dastatu haien izerdi zikina...”.

Jainkoaren hitzek gainezka egingo dute nire aho barrenean.

Hiru dira: gizonak.

Abadearen baimena omen dute. Emakume alargun eta langilea da, nonbait, zirikatzaile hutsa.

Haietako bat aukeratu behar du, hori da-eta abadearen gomendio sutsua.

Emakumeak barre egin die.

“Harria, laztana, nire harri kuttuna... Dastatu, dastatu istorioa”.

Elutsen hitzak mingotsak dira. Askatu nahi ditut nire barnetik, bota, goitika egin, kendu. Ezin dut, ordea, eta hark dioen moduan, istorioa irentsi dut.

Aurretik inoiz ez naiz lotuta sentitu, baina emakumearen oihu beldurtuak entzun ditudanean, orduan ulertu dut ezin izango nuela lankidea lagundu.

Nire gainera heldu dira arropa zartatuak; zenbaitek emakumearen ilea ere badute. Nire ondora heldu dira haren gorputzaren dar-dar behartuak; ni mugiarazteko indarririk ez dutenak, baina barnea irakiten jarri didatenak.

Eta itzala ez da piztu, ezta argia itzali ere. Denbora gelditu da.

Saiatu naiz garrasien artean hitzak asmatzen, marmarren artean esanahia topatzen. Eta ezin, ezin entzun, ezin ulertu, ezin nire oihua harenera gehitu.

“Ez, Harria, ez. Ez duzu zertan entzun. Dastatu, dastatu ipuina”.

Memento batean, emakumearen gorputza antzeman dut; nola hala, nire gainera bota du bere burua. Orain bai, orain dastatu ditut emakumearen malkoak eta odola, nire mugiezinezko gorputzak ezin aska dezakeen izerdi madarikatua.

V. ZEZENGORRI

Zipitten iruzurra

GIZAKIEK mugak jarri dituzte lurrean. Askotan, ni erabili naute lur eremua mugatzeko edota horri izena jartzeko.

Leitzalarreko lurak komunak dira. Horiek markatu eta banatu dituzte zenbait familien artean. XVIII. mendean gara. Unaien erreinuan.

“Eta berde-berdeak dira larreak, eta lainotuta dago eguna, eta maite ditut animaliak; idia, batez ere. Hura da handia, hura da arriskutsua. Ni ez naiz haren beldur, ordea.

Ikusi, Harria! Hor zaude. Eta hor. Eta hor ere bai. Selea zara”.

Zipitteen ezin asmatu. Gustuko du ipuinaren protagonista izatea, baina gustuko du ni ere hor, haren aldamenean, jartzea.

Haren istorioak beti izaten dira laburrak, iheskorrak... Detaile askotarikoak, batzuetan; sentimendu bakarra, besteetan.

“Begiratu, begiratu, Harria. Zuk eta zuk eta beste zu horrek bi landa horiek banatu dituzue. Horretan, familia Graziarena idiekin ibiliko da; beste horretan, ordea, garia jarriko dute zubeldiarrek”.

Bai, hor naiz. Familien arteko harremanen lekuko.

Gariak badu maitasunerako joera. Fereka urretsua da berea. Nahiz eta emakume horren laztana ezin nigan hauteman, sentitu dut gariarekiko duen konplizitate gozoa. Emakumeak ez du umerik izan. Bere aukera izan zen hori, haren maitasuna beste moduan partekatu du andreak.

“Andrearen bizitza aspergarria da, Harria. Ez dut gogoko. Baina umeak eta idiak elkar maite dute. Ikusi! Idi handiena da hori eta umea du lagun!”.

Zipitteen behartuta, begiratu dut larrearen beste aldera.

Ikusitako irudia ezin osotasunean antzeman. Idiak eta umeak askatutako botere korronea ni baino mila aldiz handiagoa da. Blaitu nau, bai; osorik, gainera. Eta halere, ezin hura hauteman. Zalantza izpirik gabe, ordea, sua ikusi dut, bai umearen begietan, bai idiaren begietan ere.

Andrearen ahotsa da trantzetik atera nauena.

—Antton! Gaur ere hemen, ala?

Emakumea gerturatu da. Umeak buelta eman eta irri egin dio. Haren sugarra pixka bat amatatu du; andrearekin, gozo.

Ni haien erdian naiz.

Neskaren atzean garia, haizearekin dantzan.

Umearen atzean idia, gu zelatan.

—Bai! Aitak esan dit laguntzaile izango naizela! Berak irakatsiko dit ofizioa!

—Gustura, beraz.

—Bai! Agur, Maria!

Umea berriro idi ondora joan da. Emakumeak bitxi begiratu die. Antton gaztea da, indarrez eta ametsez beteriko haurra. Idia, handia; sekula ikusitako animaliarik erraldoiena eta boteretsuena. Elkarrekin daudenean, giro laranja eta potoloa sortzen dute.

Emakumeak ezpainean egin du koska, kezkatuta.

“Xebreak dira helduen kezkak. Niri ez zaizkit axola. Ez dakite errealitatea ulertzen etorkizunean pentsatu gabe. Baina guk bai!”.

Mariaren begirada jarraitu du Anttonen aitak. Ez du emakumearen ikara ulertu, ordea, harrotasuez keinu egin dio. Bere umea ausarta da. Idi handienaren lagun.

“Idia izugarria da, Harria. Gorri ditu begiak. Eta, badakizu zer? Idiak hitz egin du. Kontatu dizkio umeari ipuin asko. Nik zuri kontatzen dizkizudan bezala.

Baina idi gaixoa. Helduak ez dira fidagarriak. Badakizu zertarako hazi duen animalia Anttonen aitak? Gizonen nahiak hain dira ilun eta beldurgarriak...”.

Bai, badakit. Helduko da unea: zorigaitza umearentzat eta amaiera idiarentzat. Mariak ere badaki, eta saiatu da Anttoni kontatzen zertarako bizi diren animalia horiek. Zelan gizakiek animalien bizitzaren kargu egin eta haien nahietara egokitu duten.

—Antton, txiki, badakizu helduko dela eguna zeinean idiak prest egongo diren eta hemendik bidaliko dituzten... Beste batzuk izango dituzu orduan lagun. Ezta?

—Idiak joango dira, Maria. Baina ez nire zezena.

Haurraren ahotsa ikusi dut. Berak askatutako hitz bakoitzak hura eta idia bildu ditu. Alegiazko hesi batez inguratuta, biek ala biek so egin diote Mariari.

“Harria, zu ez zara gizakia, zuk ez nauzu sekula zure desiren arabera ulertuko”.

Mariak garia ferekatu duen moduan, Anttonek eskua jarri dio hankan idiari. Gero, haren ondoan eseri da. Eta animalia, geldi-geldi, umearekin bat niri begira geratu da.

Hotzikara batek bortizki astindu nau.

—Ez zaituzte eramango, idi. Ez diet utziko —zin egin dio Anttonek.

Idiaren begietatik sua dario.

“Harria, zenbaitetan, helduek ere badakizkitez hainbat kontu interesgarri...”.

—Antton! Nondik atera dituzu belar horiek? Agiña da! Pozoitsua da, kontuz horrekin!

lkaratuta, oihu egin dio emakumeak. Normalean, atsedena elkarrekin egiten dute. Nire ondora datoz biak eta Mariak eramandako ogi apurra partekatzen dute. Askotan, Mariaren esku ahurrek, gariak laztandutako azalak, umearen ile luzeak ferekatu dituzte. Oraingoan, ordea, Mariak ez dio gozotasunez begiratu. Umeak, serio, bueltatu egin dio suzko begirada.

—Maria... Idia gaixorik jarriz gero, ezin izango dute saldu, ezta? Ezin izango dute hiltegira eraman!

Emakumeak ikusi du Anttonen esperantza txikia. Arnasa hartu eta isilean aholkatu dio:

—Oso gutxi eman, bestela, hil egingo duzu.

Umeak baietz egin dio buruarekin. Mariaren eskuak besarkadaren erdibidean geratu dira idia gerturatu baitzaie. Antton altxatu eta animaliarekin batera joan da bazterrera.

Gari zelaia hasi da dantzan. Haizeak kulunkatuta, mugitu da belarra. Maria berehala batu da dantzalekura. Xuxurlatu ditu hitzak, nik entzun ezin ditudanak; baina, halere, piztu nautenak.

Zubeldiarrek ez dute umerik izan. Beste modu batean bizi izan nahi dute. Elizak ez du gogoko izan haien erabakia. Herritarren artean hasi dira zenbait esamesa.

Arraroak dira.

Bestelakoak.

“Dantzan, dantzan, dantzan! Maria beti dirudi haren munduan, ezta?

Begira, idiaren suzko begiak amatatu dira pixka bat.”

Ezin dut asmatu noiz eman dion Anttonek jatekoa idiari. Baina osasuntsu, handi eta harro zegoen animalia ahul agertu da.

—Antton! Zer ostia egin diozu animaliareki?! Gure idi onena da eta!

Aita hasi zaio errietan, hartu eta lurraren kontra bultzatu du bere haurra. Idiak zuen sua gizonarengan dago orain. Animalia saiatu da gerturatzen, bere adiskidea laguntzen. Ahul dago, baina. Arrastaka, nigana heldu eta Maria bilatu du. Andreak zalantza egin du, ez da animaliarekin fida. Baina gehienetan izutu duten begiek, gaur, zintzo begiratu diote. Surik gabe; malkoetan blai.

Antton txikiak lurra atzamarren artean estutu du, gorputza dar-dar duela.

Pixka bat lasaitu da konturatu denean Maria eurengana heldu dela. Orduan, ikara kendu eta sugarra piztu da haren begi handietan.

“Ikusi! Ikusi orain datorrena! Istorioaren parte interesgarriena da! Ikusi, ikusi zelan elkar maite duten idiak eta umeak! Hain da idi handia!”

Emakumea hurbildu zaie. Belaunikatu da eta umea besarkatu du. Haren urrezko atzamarrek bildu dute Antton txikia: gariaren babesa aitaren suaren kontra.

—Egon geldi! Ez dakizu umearen errua den ala ez! Pentsatu! Idiari edozein gaitz gerta dakioko... — saiatu da Maria Anttonen aita lasaitzen.

Denbora eten da.

“Etorkizunaren afera helduen kontua da, Harria. Gu bestelakoak gara...”.

Zipitt nire aurrean ikusi dut. Begi handi-handiak, zabal-zabalik. Irri maltzurra ahoan.

Anttonek keinu egin dio idiari eta animaliak keinua bueltatu. Anttonen begietan sua piztu da eta horrela argitu dira idiarenak ere.

Umea Mariaren besarkadatik askatu da oihuka, orroka.

—Aita, aita! Ez utzi horri ni ere kaltetzen! —oihukatu du—. Bera ikusi nuen, bera izan da idia gaixotu duena eta orain ni gaixotu nahi nau. Lagundu! Lagundu, aita!

Gizonak harrituta begiratu dio Mariari. Honek ere aho-zabalik bueltatu dio begirada. Gizonaren harridurak gorrotoa, ezjakintasuna eta inbidia biltzen ditu.

Emakumearen harridurak beldurra, ezustekoa eta tristura biltzen ditu.

—Ez diot minik eman, Jose Miel. Sinistu iezadazu, faborez —hitzak heldu zaizkio, baina Mariak ulertu du esanahirik gabe heldu direla, hutsik.

Antton emakumearen besarkadatik askatu eta irribarre gaiztoa egin dio Mariari. Jose Mielek, ordea, ez du hori antzeman, ez du ikusi semearen sua begietan, ez du hauteman haren keinu hezea.

—Aita, aita! Begiratu, belar hauek eman dizkit... Esan dit horiek hartzeko eta horrela indartsu izango naizela, zu bezala! Hauek ere eman zizkion gure idiari...

Aitak agiñaren hostoak eskutik kendu dizkio Anttoni eta lurrera bota. Gero, bi aldiz pentsatu gabe, ozen eta garbi, Maria seinalatu eta esan du:

—Sorgina!

“Harria! Ikusi, ikusi zelan zezena ondo jarri zen gero, baina zaharra zenez, ez zuten hil. Beti, Anttonen lagun”.

VI. HARRI DESIRA

Lipitzen jolasak

“HARRIA...”.

Lipitz hasi zait berriketan. Nabaritu dut haren hitzen hatsa nire belarrarian. Hezetasuna eta beroa.

Aieneko garbilekua naiz. 1866. urtea da. Bederatzi emakume sartu zaizkit poliki-poliki barrura. Entzun dut haien ahots-korrontea; hauteman ditut haien mugimenduak.

Kalean isilik, nigan ozen.

Kanpoan zuhur, nigan ausart.

Haien gorputzek hartu dute lekua, bata bestearen ondoan, bederatzia nire barnean eseri arte. Eta hortxe, erdigunean, prest, nire ibaia.

Zeharkatu nau urak, geldi-geldi nago, uraren hotzak behartuta. Mina dut azalean. Baina emakumeak nigana heldu direnean, bestela sentitu naiz: artega, haien azala nirea berotzeko zain. Eskuak, eskuak eta oihalak, horiek guztien fereka behar dut.

Garbiketa hasi aurreko unek beldurtu naute. Ahaztu eta joango al dira? Nirekin emango dute goiz osoa? Eroso izango ditut? Oldarkor?

Urduritasunaren seinale, izoztutako urak burbuila bat agertu du.

“Harria, maitea...”.

Heldu da unea.

Ni irekita nago, barnean ura, blai eta blai. Barnean emakumeak, igurtzi eta igurtzi.

Hemezortzi eskuk laztan egin didate.

Jantziek nire aurka jo egin dute.

“Harria, maitea...”.

Lipitzen berbak gogoratzera behartu naiz. Jantzien oihal siku eta zikinak desatseginak ditut... Jainkoaren mezuaz oroitu, horretan paratu eta lehortasuna eta lohia desagertu dira. Urarekin labain, xaboiarekin irrist, busti-bustita.

Hemezortzi besoen konpasak, zatozte nigana!

“Harria, entzun...”.

Elkarrizketa arinetan, barreen artean, zintzotasunez, isil-mandatuak sentitu ditut. Eta ni hor naiz; elkarrekin naiz.

Jaso nahi ditut emakume guztien kontakizunak. Batzuen hitzek larritu naute; beste batzuek barrea eragin; askok, entretenitu, eta, zenbaitek, berotu. Konfidentziak. Arin, baina geldo aitortutako maitasunak. Kattalinek azkar esan dio Marisari noiz izango duten aukera berriro batzeko; halere, hitz baten eta bestearen artean beharrezkoa den baino une luzeagoa utzi du. Maitalearen desira estutuz lehenengo; gero, zabalduz. Horrela sentitu dut nik nire barruko erliebea, zabaldua eta estututa, haien behar eroan.

“Harria, entzun hitzik gabe esandakoa...”.

Atzamarrak elkartuta. Gertutasunaren beroak ur hotzarekin lasaitu nahian, sartu dituzte laurogeita hamar hatz nire uretan. Eta atera. Eta batzuk, sartuta; eta besteak, kanpoan.

Eskuek, zenbaitetan euren artean, laztan. Nire igurtzia edo haien fereka, ezin ditut banatu, ezin bakarka ulertu.

Elkarrekin batu dira. Nahia, desira, beharra... Bataren eta bestearen premiak. Guztiak, nigan: entzuidazu-ulertuidazu-barkaidazu-maitaidazu... Eta ura hasi da borborka.

“Harria, babestu...”.

Emakumearen formak zizelkatu dira nire kanpo. Hor, kalean. Hor, etxean. Hor, elizan. Hor, beharrear. Beti existitu da hor eta betiere esan diote zelan agertu behar den horretan.

Harria erabili da emakumearengandik urrun. Hor, kalean. Hor, etxean. Hor, elizan. Hor, beharrear.

Emakume atsegina, emakume isila, emakume langilea, emakume ederra, emakume arautua.

Harri indartsua, harri porotsua, harri horixka, harri sendoa, harri hauskorra, harri eraldatua.

Hemen, nigan, gure ibaian. Ez dugu zertan bereizi. Ez da harria. Ez da emakumea.

Hemen, nigan, gure ibaian, izaki bakarra gara. Unean-unean, norbait, zerbait... mugitu da.

Bederatzi aho dituen izakia gara, horiek itxi eta zabaldu dira. Ezpainetan bermatu dira bakoitzaren desirak, nireak.

Hemezortzi esku dituen izakia gara, horiek itxi eta zabaldu dira.

Azalean bermatu dira bakoitzaren beharrak, nireak.

Bat-batean, beldurra sartu zait. Nire bederatzi sudurrak, bederatzi zilborrak, kilometro hesteak, babestu beharreko premia. Harria naiz, sendoa naiz, nire baitan, seguru zaudete. Gaude.

Nago.

Berotasun ororen babeslea nauzue.

Marisak musu sakon eta hezea eman dio Kattalini belarria eta lepoa batzen den tokian.

“Harria, helduidazu...”.

Elkarrizketak, kolpeka.

Besoen mugimenduak, zaratak... marmar handi batean, sendotuta.

Solasak elikatuta, handi, lodi, gozo jaioa da emeki, sekretuak kontatu dizkidan melodiak.

Zenbait desioen hasperenak heldu dira melodia nagusira eta, horren barnean, azpiko doinu motel bilakatu.

Eta nia irekita, eta nia ferekatuta, eta nia bustita, eta nia maitatuta, eta nia taupadaka dudala ulertu ditut Lipitzen jolasak.

“Harria, libre eta indartsu, gozatu!”.

VII. HESTEEN NAHIA

Tolortaren kondaira

TOLORTAREN istorioa alde batetik bestera mugitu da, beti. Denboraren pertzepzioa ez da lineala. Horregatik, batzuetan, XX. mendean nago; beste batzuetan, XXI. mendean eta, askotan, denbora bera baino lehen.

“Harria, Leitzarari ibaiarekin bat bizi zara mendian. Egun batean, zu zaren osotasuna usteldu da. Gogor batuta zenuen gorputza, bigundu. Eta apurka-apurka, zatiak sortu dira. Zulatu zaituzte; beraz, zure gorputz sendotik askatutako mintz eta erraiak atera dituzte”.

Nire sudurraren barnean Tolortaren usaina aldatuz doa, haren hitzen arabera da.

“Inoiz ez badituzu argiak eragiten dituen kiratsak nabaritu, ezin duzu ulertu zer den gertatutakoa. Ezin azaldu zer den makina horiek egin dizutena. Ilunpea zatitu eta argitu dute, usain berriak sartu dizkizute. Eta, Harria, ulermenik ez badago, ezagutza primarioa da. Badakizu zein den bizitza ororen oinarria? Beldurra”.

Sudur zuloak itxi zaizkit jainkoaren azkeneko berbarekin. Itotzear naiz. Eta, horrela nagoela, nire sena sentitu dut: hasieran itxita, lasai, fresko; gero deseginda, bizi berriaren makilada jasota. Ez dut kolpeak eragindako sakonunea hauteman; ordea, deskonposizioa usaindu dut.

“Gure munduan, iluntasuna zen errai. Haize gabeko bizitza zen gurea, elkarrekin, lasai. Ezen, ireki gintuztenean, Harria, ilundura genuen agertoki. Ezin bestelako harrera eskaini: zatozte, zatozte eta zeharkatu harri ustela”.

Trena heldu da.

Leitzarani ahoa eta uzkia jarri diote. Eta bertatik harriaren burdina igarotzeko, hesteak zulatu dizkiote.

Tolortak behartu nau nire hesteak usaintzera. Haren barre nazkagarriak azkura eragin dit sudurrean.

“Kar, kar, kar. Harriak harria irentsi eta harria askatu du. Ez al da maitagarria ikustea norberaren kanibalismoa? Horren aztarnaren beldur ote dira, oraindik?”.

Esan bezala, Tolortaren kontakizuna ez da lineala. Hasierako burdin garraiotik atera nau eta bestelako egoerara eraman: bi pertsona sartu zaizkit barnean. Nire horma batean argia jarri dute, orain ni naizen hestea zeozer turistikoa da. Plazaola tren zaharreko arrasto.

—Itxaron, itxaron, ez ezazu argia oraindik piztu! Nahi dut iluntasunean murgildu. Pixka bat, behintzat. Irribarretsu, esan dio emakumeak gizonari.

Mementoan, Tolortak ere egin du barre. Haren antzinako hatsak emakumearen ilea blaitu du.

Lehenengo, ikusi dut zelan neskaren arropak busti dituen, hezetasunaren usaina haren gorputzean itsatsi du. Gero, konturatu naiz emakumearen zalantzaz. Pausoka, iluntasunean mugitu da, geldo. Begirada urrunean ipini du, irteerari eskatu dio itxaroteko. Baina hara heldu aurretik, ni zeharkatu behar nau.

“Makinaren barnean, bestela mugitzen ziren. Konturatu al zara?”.

Oraingoan, trenak ez ditu burdin harriak eraman, pertsonak daude bere barnean. Asko alai; beste batzuk, urduri. Oso dar-dar txikia egin dut, ez dute aditu... Badakizue zer den gosea? Une honetan, trena besarkatu nahi izan dut, nire azala harengana hurbildu eta dastatu. Dastatu izerdi guztiak, lurrinak, arropak eta desirak.

“Hori da, Harria. Bazkatu zaitetz gizakiaz”.

Tapa-tapa. Tolortak, berriro, ekarri nau emakumearengana. Gazteak ibiltzeari utzi dio, antzeman du zelan iluntasuna izterretan korapilatu zaion. Eskuak poliki mugitu eta zabaldu ditu, egiaztatu nahian bera inguratzen duena airea dela. Baina aire horrek bestelako dentsitatea du, jakina. Tolortaren usain gordina da eta.

Tolortak neska bildu du. Pixkanaka-pixkanaka, maitekor, oin puntetatik belarriaren atzeko azalera garraiatu da. Hor gorde da, zain.

—Piztu, piztu argia! —nahi baino ozenago atera zaio guraria. Haren ahotsa entzun duenean, konturatu da ikaratuta dagoela, eta horrek oraindik gehiago beldurtu du.

—Hara, hara! Ez zaizu atera bada, ausartaren planta! —erantzun du gizonak. Keinu lasaigarria bidali nahi dio lagunari, baina hark ere sumatu du izua. Ez da argi etengailutik aldendu. Eta hortxe zegoela, argitasuna hain hurbil, haren eskutik zentimetro estuetara, Tolorta usaindu du. Nire paretatik labain, herdoildutako ura.

Elkarri eskua eman eta barre urduria egin dute. Irten nahi dute. Ni zeharkatu, lehenbailehen. Hasi dira berriketan, ideia berriak dastatu nahi dituzte, edozein. Nik ere haiek dastatu nahi ditudan bezala.

“Baina ezin horiek jan, ezta, Harria?”.

Galderak izorratu nau. Argiak dir-dir egin du, zirikatzaile.

“Hasieran bat ginen, ez genekien zer zen argia, ez genekien zer zen zulatua izatea, ez genekien zer zen atalka gure gorputza ustelduta galtzea. Baina ikasi genuen hori guztia, ezta? Eta batez ere ikasi genuen zer den gosea”.

Nire barnetik pasa dira behin eta berriro, trena eta haren kiratsa metalikoa, pertsonak eta euren beldur iheskorrak.

“Harria, nire heste kuttuna, usaindu, usaindu al duzu horien eskuetan gordetako janari arrastoa? Haien begietako malko xumeak? Euren belarrietako argizaria?”.

Bai, usaindu ditut. Eta, jakina, usainak nire gose amorratua piztu. Bikoteak aurrera egin du, baina argiaren etenune batean, gizonak oina okertu, labain egin eta nigan utzi du urratutako azalaren aztarna txikia. Odola ere izan da.

“Kar, kar, kar. Gozatu, Harria, hesteen nahi asegitzaz”.

Haginkada txiki gozoa da.

NAHASKETAK I. MAITASUNAK

Ahots berria

“LAGUNA”.

Hitza sentitu dut haren besarkadan, haren begiradan. Hark ni hartu eta mundua erakutsi didanean.

“Laguna”.

Hitza sentitu dut. Eta, bilatu.

Saiatu naiz topatzen Lipitzen arintasuna; eta aurkitu dut, baina beste zerbait ere bai.

Saiatu naiz topatzen Elutsen freskotasuna; eta aurkitu dut, baina beste zerbait ere bai.

Saiatu naiz topatzen Iartzaren zintzotasuna; eta aurkitu dut, baina beste zerbait ere bai.

Saiatu naiz topatzen Tolortaren mugimendua; eta aurkitu dut, baina beste zerbait ere bai.

Saiatu naiz topatzen Zipitten bihurrikeria; eta aurkitu dut, baina beste zerbait ere bai.

Saiatu naiz topatzen Aztinen jakinduria; eta aurkitu dut, baina beste zerbait ere bai.

Eta beste hori ez dator jainkoengandik. Eta beste hori zurea da: harri-jasotzailea.

Nire laguna.

NAHASKETAK II. HIZKERA

Ahots berria

NIRE PAREAN horrelako berbarik ez dut aurretik entzun. Berak azaldu dit txokoa sortu nahi didala:

“Habia josi...

Harria hain da handia, hain da indartsua, hain da sendoa... Ezen, askotan, norbaiten kabi ere izan den.

Harria hain da pisutsua, hain da ikusgarria, hain da ahaltsua ... Ezen, askotan, norbaiten arma ere izan den”.

Jaso dut mezua eta, nolabait, poztu naiz. Harro nago ahots honek esandakoarekin.

“Baina...

Batzuetan, xumea, apala, makala da harria. Agian, nire eskean?

Batzuetan, iluna, hotza, hauskorra da harria. Agian, nire beharrea?”.

Oraingoan, urduritasuna nabaritu dut nire barnean. Nire harrizko eskola apurtuko den beldur naiz, are gehiago, hura apurtu eta askatutako harri kozkorrek eman dezaketen minak beldurtu nau.

“Zu...

Ez zara nire jainko, eta ez duzu zertan izan,

eta horregatik, hain zuzen, usaindu zaitut;

eta horregatik, hain zuzen, laztandu zaitut;

eta horregatik, hain zuzen, ezagutu zaitut”.

Ondoan zaitut, beraz. Nolabait ezagutu dut hitz egiten nauenaren beroa. Nolabait, nabaritu dut haren artilezko narrazioa.

“Zaitut.

Belaunaldiz belaunaldi, maitasunez sortutako txokoan ikasi zaitut. Zu ulertu, zutaz babestu eta zure aurpegi guztiak ikusi ditut.

Horregatik, indartsua zarelako zure indarra bildu dut.

Horregatik, makala zarelako zure ahultasuna kulunkatu dut”.

Ahots horren ideiek oihal anitzeko zurrunbiloa sortu dute, ni barnean sartu eta estutu naute. Tentsioak, indarrak, hemen eta orain egotera behartu naute. Ez naiz eroriko, ez naiz apurtuko.

“Etxea...

Denboran zehar zu zaren Harria, askotan, lagungarri izan zaitut.

Denboran zehar zu zaren Harria, maiz, ikusgarri izan zaitut.

Denboran zehar zu zaren Harria, batzuetan, beldurgarri izan zaitut.

Eta belaunaldiz belaunaldi, zu, izan nauzu hobi”.

Hitzen eta harien mataza horretan gozo-gozo geratu naiz. Amesteko zain.

Jostunak harilkatuko dizkidan ipuin berriak janzteko, irriketan.

ERANSKINA

(MIKEL OLANOK idatzitako Aio, Leitze hiztegitik)

LIPITZ

“Brizna” (Azp. 63-4). Izen askori lotzen ahal zaio, beti ere “gauzaren murrizta, ttikitasuna” nabarmentzeko. Elordin Joantxo Barriolak, konparaziora, honako esaldi honetan txertatu dit: “Euri lipitz bet, langarra benõ arinẽgoa”. Astaitzagako Batiste Zabaletak, berriz, honela esan dit: “Hik ez dok lanen lipitzik itten”.

ELUTS

Leku ospela, laiotza. Ia eguzkirik sartzen ez den paraje itzaltsuak izaten dira. Badirudi gaur egun ez dugula toponimian beste inon. Areson, esaterako, Elutseta, Elutser (edo Elutseder) ditugu, eta Leitzaun Eluts aundi. Izen arruntetan, aldiz, gaur egun ospel adjektiboa erabiltzen da lautik lautan: leku ospela, baserri ospela, mendi ospela... eutera, ospel.

IARTZA

Baso zati bat soildu ondotik, egur ihar eta zakardi gelditzen den eremua. Horixe gogorazten[gogorarazten] dute, hain zuzen ere, lartzaundi eta lartza toponimoek, Joxemiel Elosegik adierazi didanez. Iparraldeko zenbait hizkeratan erabiltzen den ihartze (“udazken, larrazken”) hitzarekin alderatu beharko litzateke beharbada. Baina horretaz gainera, iartza hitzak badu Leitzaun oihartzun historiko ozen bat: frantzeste[frantseste] gerraren garaiko Frantzesen iartza leku izena, beste zenbaitek Frantzesen arrobie edo Luisen zurrubillue deitzen dutena. Honatx Sorobarrengo Joxantonio Sukuntzaren azalpenak: “Gero, Bonapartek or beian abandonatute utzitzeko frantzes orik, erretiren eldu ziela galdu zien Frantzesen iartzan; aitzea izanen dozo or Leitzaunarren, Frantzesen iartza deitzeioan lekue, ba ortxe galdu zien frantzes saill aundie. Or paraje gaizto ikaragarrie da, dena arkaitze ta malkarra. Pasatzeko arteka estu bet da, ta an irrirtu ezkerro, beiko erreka yo arten eztao gelditzeik. Ta, esaten due: frantzes orik eldu ziela yakinkio ta, baten batek ure bota omen zula ta, koillatea izan da, gaben eldu zienak, denak beiko errekarra yoaten!” (PP 96: 591)

TOLORTA

“Arroltze tolorta. Huevo podrido, batueco” (Azp. 67).

ZIPITT

Pertsona erretxina, zipotza, ezinegona eta zirikatzailea; horrela adierazi dit Artxikoneko Maria Jesus Gogortzak.

AZTIN

Arestian. "Aztin. Hace un momento. Aztin etorri da" (Azp. 63-4). Honela jaso diot Astaitzagako Mikela Labaieni: "Aztin aitto gatton beoriken kontutan, oainẽ seittuko zeionu orri pixkoat". Martin Lizarraga "Infernu" txerriketariak esana: "Zugarramurditik sartzen ginõzen mendiz- mendi beste aztin esan doten Arizkungo eta Mayako baserri horik denak ekusiz".